

## Historias vascas


**B**ESTELAKO euskal aber-tzaletasuna abiatu zen Bizkaian eta Euskal Herrian 1917-1918an. Euskal abertzetasunari buruzko liburuetan Jesus Sarria eta *Hermes* aldizkariko lagunak ortodoxiatik at zeudela agiri da. Bainan nire ustez R. Sota Aburto, Jose Horn, Luis Urrungoetxea Bizkaiko Diputaziotik eta J. Sarria eta *Hermes* aldizkariko Ramon Belaustegigoitia eta José Vilallonga besteak beste, euskal abertzetasun berria nazioarteko testuinguruuan eraberritu zuten. Aurrerantzean, euskal autogobernu politikoa oinarri demokratiko liberalen ondorioz lortu behar zen. Ameriketako Estatu Batuetako presidentearen zenak, Thomas Woodrow Wilson, 1918ko urtarrilaren 8an, 14 puntu jarri zituen mahai gainean, Europaren bake iraunkorra babesteko. Herrien autogobernu eta autoerabakuntzaren alde egin zuen. Leninek ere lehenago herrien nortasunaren alde eta autoerabakuntza aldarrikatu zuen. Wilsonen printzipioak *Hermes* aldizkarian komentatu eta zabaldut ziren. *Euzkadi* egunkarian ere, bereziki Poloniaren independentziaren aldeko aldarria.

Bizkaiko Aldundian, gobernatzen ari zen Sota Aburto gaztea. Foruen bidezko aginteari berreskurapenari uko egin gabe, Euskal autonomia estatutuaren aldeko proposamena idatzi, eta burutu zuten 1918an. J. Sarriak "Gobierno propio vasco" eta R. Belaustegui goitiak "Gobierno nacional vasco" delakoak formulatu eta azkenik, 1936an "Euzko Jauriaritza-Gobierno Vasco" sortu zen.

Jesus Sarria *Hermes* aldizkariaren bidez pentsalari eta eragile zuzen zuzena izan zen eta heriotzaren 100 urte beteko dira 2022ko uztailaren 27an.

**KULTUR ETA SPORT KULTURA** 1920an, Bilbon 112.819 pertsona eta ibar ezkerrean 76.820 pertsona bizi ziren, Bizkaiko populazioaren %46. Gizarreko klase aberatsak, aisiaidirako asti gehiago zuten eta musika, arte eta kulturaren gozamena kontsumitzen zuten. J. Sarriak *Hermes* aldizkariak kulturaren aldeko aisiaidialdia erakutsi nahi zuen. Aldi berean sport kultura rak gora egin zuen eta Bilboaldean Athletic eta futbola bihurtu zen sport kulturaren ikur.

**BILBO BERE ABERASTASUNAREN GAI-LURREAN ETA IRAULTZA SOZIALA** 1914ko Europako gerrateak aberastasuna ekarri zuen Bilbora, Spainia neutral mantendu zelako. Garai honetan sendotu zen Bilboko basketxeen egitura, hainbat enpresa berri sortu. Bainan aldi berean, Bizkaian, 1917ko uztailean grebak hasi ziren. Langileek eskatzen zuten: 8 orduko laneguna gehi soldaten igoera %25. 1917ko abuztuaren 13an Espainian langileen sindikatuek greba orokorra deitu zen eta Bilbon armada sartu zen, guztia gelditu zen eta hildakoak 26 eta zaurituak 350 izan ziren. 1919ko apirilaren 3an, Espainiako gobernuak 8 orduko laneguna agindu zuen sektore batzuetarako baina laster batean guztientzat.



Antonio de Guezalak 'Choque de tranvías en el Arenal' egindako margolana. Argazkia: SAF

**Jesus Sarria 'Hermes' aldizkariaren bidez pentsalari eta eragile zuzen zuzena izan zen eta heriotzaren 100 urte beteko dira 2022ko uztailaren 27an**

*Joseba Agirreazkuenagak erreportajea*

# Jesus Sarria gogoan (1922): Bestelako euskal abertzetasun eraginkorra



Jesus Sarria erretratua batean.

**JESÚS DE SARRIA FERNÁNDEZ-ALBAR. (LA HABANA 1887-BILBO 1922)** La Habana jaio zen eta 23 urte zuela, 1910an, Algortara etorri zen. Villa Donerillan, Basagoiti ibilbidean giro euskalduna, izekoen artean, ezagutu zuen. Zuzenbidea ikasi zuen doktoretza maila lortu ere eta ikuspegi kosmopolita zuen. Bere burua epikureotzat zuen, Unamuno, Baroja eta Maezturen lanen irakurle su-

tsua, arte zalea eta gastronomo fina. 1916an abokatutzan hasi zen eta aldi berean Bilboko Ateneoko zuzendariordea izan zen. 1916ko urriaren 13an, M. Unamunori idatzi zion gutunean, *Mercurio del País Vasco* ize-neko aldizkariaren egitasmoa agiria: "que nuestro país tenga una publicación seria, editada elegante-mente, en cuyas páginas expongan sus ideas sobre toda clase de cuestio-

nes –literarias, económicas, artísticas, sociales– los escritores más ilustres del solar vasco, sean cuales fueren las ideas políticas de cada uno de ellos. No serán excluidos los escritores del resto de España, pero figurarán con mucha mayor frecuencia los de nuestras cuatro provincias".

*Hermes* aldizkaria sortu zuen 1917an. Euskal herritar guztien gunea behar zuen izan. Hala ere *El Pueblo*

Vasco monarkikoen egunkarian, "españolismoaren" defendatzailetzat zuen bere ildo editoriala, aurrez aurre kritikatu zuen. Monarkikoen ustez J. Sarriak propon-satzen zuen euskal abertzetasuna, itxurazko irudi erakargarria baino ez zen. M. Unamunori, 1919ko martxoaren 25an monarkikoez zuen iritzia azaldurik: "el dominio señorial que los ventrudos señores de la Piña y sus secuaces ejercieron aquí durante 25 años. V. sabe que esa gente despreció a la inteligencia, odió la ciudadanía y hasta la delicadeza artística le dió asco."

Kubatarra izanik jaiotzez, Kubaren independentziaz Bilboko euskal gazteriaren egoitzan egin ondoren, 1919an, prozesu judiciala jasan behar izan zuen. Bestalde, *Euzkadi* egunkariak erasoetak defenditu arren, Kizkitza ez zetorren bat J. Sarriaren euskal abertzetasunarekin.

1922an bere mundua gainbehera erori zitzaion, arlo profesionalen eta pribatuan. Alde batetik *Hermes* aldizkarian eralgi zituen diru kopuru handiak baina alperrik. Alejandro de la Sota, bere adiskide mina, arlo ekonomikoan zein intelectualen bere ondoan jarraitzen zuen, baina urrun, Londresen bizi bait zen. Gauzak horrela, 1922ko uztailaren 27ko goiz erdian, Bilboko Correo kaleko 18 zenbakian, bere burua bota zuen kalera.





**PENTSAKERAREN ILDOAK** Gogoeta luze eta sakonaren ondorioz iritsi zen euskal abertzetasunen bere burua kokatzen. Bainan euskal abertzetasuna, zabala eta integratzalea bihurtu nahi zuen eta ezkertiarra. Euskal Herriaren berbikunde kulturala eta nortasun politiko nazionala errotzea, printzipio demokratikoetan oinarritu behar zen. Horretarako *Hermes* aldizkaria sortu zuen: "Hermes (divinidad griega) que decora y protege las cúpulas de tantas Bolsas y Centros comerciales y los vestíbulos de los grandes gimnasios, es también mensajero alado de las ideas y patrón de la elocuencia" (...) "Hermes es escuela de civismo y de solidaridad entre vascos".

Euskal Abertzetasuna guztien artean sortu eta indartu behar zen: "los que han venido o vengan a nuestro País cordialmente, a ser partícipes duraderos de nuestra suerte favorable o adversa, son nuestros".

1919ko martxoaren 19an M. Unamunori idatzi zion gutunean

bere abertzetasunaren ikuspegiak zehaztu zituen: "Mi nacionalismo, que en muchos puntos choca con dogmas y prácticas nacionalistas corrientes, no le causaría a V. ni pavor ni repulsión. Ya verá V. algún día. Desde luego, y es público, soy nacionalista ambicioso y de izquierda (...) Estoy seguro de que se hermanarán al fin un día para estirpar esa plaga el nacionalismo y las izquierdas. Y se hermanarán porque tendrán puntos sustanciales de coincidencia. ¿Cuándo? No me siento con bastante audacia para profetizar la fecha. Pero veo cómo se aproximan

## Historias vascas



cada día unos a otros, contra los muñecos y las momias, los hombres de carne y hueso". Egia esan lastergertatu zen, 1920an Bilboko alkate Rufino Laiseca sozialista aukeratu zutenean. Eta 1936an ere.

Bestalde, demokrazia sozialaren aldekoa izanik, ahalik eta armonia handiena sortu guran, euskaldunen artean, zuen helburu. Konfederazio iberikoaren ikuspuntua zuen: "Euzkadi, reivindicando su nacionalidad y su soberanía no es obstáculo a la grandeza de España" (*Ideología del nacionalismo vasco*, 1918). Bere lanak eta ideiak eragina izan zuten gazte belaunaldian, II. Errepublika garaiko Euzko Alderdi Jeltzaleko buruzagietan eta euskal abertzetasunaren eraberriete demokratikoaren aitzindaria eta bultzatzailea bihurtu zen. 1919ko ustea, euskal abertzaleak eta ezkertiarak bat egingo zutela, 1936ko kinka larrian, bete zen.

**'HERMES' ALDIZKARIA ETA EDITORIAL VASCA-EUZKO ARGITALDARIA** 1917an aldizkariaren sorrera eta finantzia-zioa Jesus Sarriaren ekimena izan zen. Madrilen ere aurkeztu zuen eta Alejandro de la Sotak honela ikusi zuen: "Para el fin de semana Sarria, chiquito y tartamudo, pero dinámico y zalamero, consiguió cocinar un alarmante revoltijo de escritores y artistas; el escritor derechista codo a codo con el izquierdista". Jose Mari Sota Povedari esker *Hermes*en azken kontuak ezagutzeko aukera dugu. Aldizkariaren edukiarri begiratu ezkerro hiru aldi desberdin egon ziren: Lehena, 1917ko urte osoa. 1918ko martxoaren 30ra J. Zuanagoitiarekin batera, Hermes S.A. ize-neko konpania sortu zuten galera ekonomikoak estatzeko. Ondoren, Editorial Vasca - Euzko Argitaldarria S.A., 1918ko ekainaren 22an antolatu zuen. Ramon de la Sota Llano zen

# Muerte del Sr. Sarria

A las once menos cuarto de la mañana de ayer, ocurrió en la calle del correo un tristísimo suceso, del cual fué protagonista el distinguido escritor vasco don Jesús Sarria.

A la mencionada hora, los numerosos transeúntes que pasaban por la citada calle, se vieron desagradablemente sorprendidos al ver caer desde uno de los pisos superiores el cuerpo de un hombre.

Inmediatamente se acercaron varios y al incorporar en el suelo al caído, vieron que las lesiones que padecía eran de suma gravedad.

Con la urgencia que el caso requería, se le trasladó en un automóvil, graciosamente cedido por una dama que se dirigía a los funerales por el alma de la señorita Carmen de Zubiría, a la Casa de Socorro, situado en este centro benéfico infestacca todos los auxilios que se pusieron en práctica. El señor Sarria había dejado de existir.

El muerto habitaba con una tía suya en el piso tercero, derecha, del número 18, de la calle del Correo.

La versión más generalizada respecto a las causas que impulsaron a don Jesús Sarria a darse muerte, fué que era víctima de una gran excitación que le produjo un fulminante ataque de enajenación mental, lanzándose repentinamente a la calle, sin que pudiera ser evitado la tragedia.

Jesus Sarriaren heriotz-oharra. Argazkia: J. A.

presidenteza eta J. Sarria empresa berriaren kudeatzaile nagusia. Argitaldaria Bilbon izango zuen bere egoitza eta liburuak, aldizkariak eta bestelako lan tipográfikoak egiteko sortu zen: "Las publicaciones que la Sociedad haga por cuenta propia se inspirarán en las ideas de reconstitución nacional vasca desarrolladas por D. Jesús de Sarria en su reciente obra *Ideología del nacionalismo vasco*". Hermes aldizkaria aurrerantzean, argitaldariaren zati bat izan-

go zen. 1918ko uztailatik 1919ko abenduera *Hermes* hamabostero argitaratzen zen. Euskaltzaletasunaren inguruko gaiak ugari ziren. Azken aldian, kosmopolitagoa bihurtu zen.

**EUZKO ARGITALDARIKO KUDEATZAI-LEAREN TXOSTENA 1922KO MARTXOA-REN 24AN** Hermes aldizkariak galea ekonomiko sakona eragiten zuen. J. Sarriak enpresaren kudeatzaile izanik txostena idatzi zuen: "Hermes es, hay que repetirlo siempre, una

## EGILEA

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA (1953)

Historia garaikidean katedraduna eta ikerketa taldeburua (UPV-EHU) eta Eusko Ikaskuntzan, historia sailburua, presidenteordea eta presidente (1992). ICHRPIko presidente, (International Commission for the History of Representative and Parliamentary Institutions), Nazioarteko Zientzi Historiko Elkartearen (CISH-ICHS). 2019ko Euskadi Ikerkuntza Saria. 24 liburu argitaratu ditu, azkenak, 'The Making of the Basque Question' (2011), 'Euskal Herritarren burujabetzaz' (2012) eta 'De los vascos sin historia a los vascos con Historia' (2017).



Empresa gloriosa, pero ruinosísima". Harpideak galtzen hasi zen: 1921an 65 harpide galdu eta 12 berri irabazi. Aldizkariak 1921ean 15.850 pezatko defizita eragin zuen eta 1918ko urteaz gerotzik zuloa 62.208ko zen.

Beraz, 1922an presupuestoa murritztea erabaki zuen eta aurreantzean, J. Sarriaren proposamena, *Hermes* eta Euzko Argitaldariko kutxak banatzea, Euzko Argitaldariaren etorkizuna bermatzeko.

J. Sarriak bere azken txostenean hau idatzi zuen: "Editorial Vasca puede vivir sin *Hermes* pero *Hermes* no puede vivir sin Editorial (...) La dura lección que nos ha dado la insensibilidad del público en la realización de nuestra obra de cultura debe hacer más firmes, más inflexible nuestra decisión de vivir comercialmente (...) Pero el porvenir hará justicia, porque del presente de este País, rico, pero, con pocas excepciones, sordo a los deberes de la alta, de la desinteresada cultura, no puede, según parece, esperarse justicia". ●

CLICK:sabinoarana.eus

ATEAK ZABALIK PUERTAS ABIERTAS

PLAU HAIZETARA

Erabateko  
sarbidea gure  
eduki digitaleara:

artikulu  
historikoak,  
argazkiak,  
agiritegiko  
dokumentuak,  
biografiak,  
ikus-entzunezkoak...

Acceso libre  
a nuestros  
contenidos digitales:

artículos  
históricos,  
fotografías,  
documentos  
de archivo,  
biografías,  
audiovisuales...

